

Nicolas Zubeldia Goya (José Nicolas Benito erregistroetan)

- Joaquin Maria Zubeldia Aguirre eta Ramona Goya Catarainen semea.
- Poncianoren eta Franciscoren anaia; Gaintzako apaiza eta organista izan zen.
- 1890/12/12an jaio zen Abaltzisketan.
- 1954/12/18an hil zen Gaintzan.
- Musika ikasia.

Ignacio Garmendia Garmendia (Xanti Garmendiaren osaba)

- Gaintzan jaio zen 1898/02/01ean.
- Duela 20 bat urte (1987an) Madrilen hil zen.
- Jesuita. Organista izana leku askotan.
- Madrilen egon zen lehenengo; gero, Granadan, Toledon eta Errepublika garaian Espainiatik kanpora bidali zituzten. Madrila itzuli, eta S. Francisco de Borja parrokian eman zituen azken urteak.

Bittor Idiazabal Esnaola (emaztea Gaintzako maistra: Juana Gorrotxategi Gorrotxategi)

- Erreterian jaio zen 1909/11/14an.
- Erreterian hil zen 1985/03/26an.
- Ikasketak Erreterian egin zituen.
- Musika ere Erreterian ikasi zuen, solfeoa, koruan kantatzen, txistua (silbotea jotzen zuen garai hartako bandan)...
- Gerra ondoren kartzelan egona, Logroñon eta Bilbon, hiru bat urtez, eta lan-batailoietan ere egon zen.
- Lanbidez modelista zen, fundiziorako moldeak egiten zituen; lehenengo, Gaintzan eta gero, Erreterian. Goierriko hainbat enpresatarako egiten zituen moldeak: Indar, Patrizio Etxeberria...
- Erreteriara itzuli zirenean, Luzuriagan egiten zuen lana, moldeak egiten.
- Gaintzara 1943-1944 ikasturtean joan ziren, eta 1961ean itzuli ziren Erreteriara. Organista ere izan zen Gaintzan, Kontzilioa baino lehenago koruan jotzen zuen harmoniuma eta kantatu ere bai.
- Gaintzan zeudela, askotan joaten omen zen Erreteriara, eta, azkenik, hara itzuli ziren, ez omen zuen beste herrietan bizi nahi.
- Dantzaria izana eta dantza-irakaslea ere bai. Donostiako Atotxan dantzarien bilkura zela eta, Erreteriatik tranbia bat dantzariz betea joan omen zen.
- Erreteriako Orereta ikastolako sortzaileetako izan zen eta lehenengo lehendakaria ere bai. Beti ikastolaren eta euskararen inguruan mugitu omen zen.
- Erreteriako koruan eta Donostiako Santa Zezilia koruan kantatzen zuen.
- Erreterian kale bat eskaini zioten 1998an, **Bittor Idiazabal kalea**.

Konstantino Lizarralde Garmendia

- Gaintzan jaio zen 1916/04/12an.
- Donostian hil zen 2001/11/12an.
- Seminarioan egin zituen ikasketak; musika ere han ikasi zuen.
- Gerra garaian, Ebroko batailara eraman zituzten, eta erabat desengainatuta geratu omen zen; han erabaki zuen apaizgintza uztea.
- Frontea utzi eta azterketa ofizialak egitera etortzeko baimenarekin etorri zen.
- Gerra ondoren, berriro soldadutza egin behar izan zuen, beste 3 urte.
- Bilbon Administrazioiko titulua atera zuen, eta 26 urterekin lortu zuen Udal-Idazkaritzarako titulua.
- Zaldibia eta inguruko herrietako Udaletako idazkaria izan zen.
- Zaldibiako eta, zenbaitetan, inguruko beste herrietako organista izan zen, 34 urtez (Gaintza, Legorreta...).
- Soinu handia jotzen ere bazekien.
- Gaintzan maisu egon zen eta soldadutzan ere bai.
- Joxe Mari Ormazabal, inguruko herrietako organista eta idazkaria izandakoaren oso laguna zen.
- Tenerifera joan zen, eta han 4 urte eman zituen.
- 60 urterekin Gipuzkoara itzuli eta Anoeta-Irurako idazkaria izan zen beste 3 urtez.
- Jubilatu ondoren, Donostiako Artzain Ona katedraleko koruko kidea izan zen, Jose M^a Zapirain apaizaren zuzendaritzapean.

Felix Garmendia Garmendia “Dendaletxe”

- Gaintzan jaio zen 1921/01/06an.
- Donostian hil zen 1999/04/25ean.
- Gaintzan lehenengo eta Baliarrainen geroago, elizan organoa eta plazan soinua jotzen zituen igandero.
- Beasaingo Maristetan eskolatua, pianoa jotzen ikasi zuen eta soinu handia jotzen bere kontura ikasi zuen.
- Goierriko herri gehienetan ibiltzen zen soinua jotzen festetan eta ezkontzetan.
- **Aita ere soinujolea zuen** (Felixek 7 urte zituela hil omen zen).
- Igeltseroa zen eta Legazpiko Patrizio Etxeberria lantegian egiten zuen lana.
- Biloba batzuek musikarekin jarraitu dute; batek pianoa jotzen du.

Juan Bautista Eceizabarrena

- ◆ Alegian jaio zen 1929/08/30ean.
- ◆ Azpeitian hil zen 1998/11/02an.
- ◆ Seminarioan ikasia, musika ere bai.
- ◆ 1954an, apaiz egin ondoren, Abaltzisketan egon zen urtebete inguru. Ondoren, Gaintzara joan zen urte pare baterako. Sigüenzako seminaria bidali zuten latina irakastera. Handik Azpeitira etorri zen.

- ◆ Abaltzisketan harmoniuma jotzen zuen, izugarrizko gustuarekin eta gozatuz. Gaintzan hurrei solfeoa irakasten zien eta harmoniuma jo ere bai; organista lana egiten Gaintzan bakarrik egon zen.

Juan Dorronsoro Goikoetxea

- Ataun S. Gregorion jaio zen 1936/01/23an.
- Seminarioan egin zituen apaiz ikasketak.
- Baliarraingo Abalei baserriko Jose Antonio Arteagarekin (apaiz Ataunen) hasi zen solfeoa eta pianoa ikasten.
- Seminarioan jarraitu zuen musikarekin (Garbizurekin...), baina organista ez zuen izan nahi, nabarmenduz gero organista lana egin beharra baitzegoen seminarioan, eta apaiz organista ez zuen izan nahi; horregatik, ezkutuan aritzen zen ikasten, gehienbat bere kasa.
- Jose Antonio Arteagaren ilobari erosi zion pianoa, eta, Gaintzan, Sorozabalek berak jo zuen piano horretan, hara joan zen batean.
- Gaintzan, Ataunen, Itziarren eta Zumaian ere organoa jotzen aritzen zen, baina “pasadizokoak”, berak dioen bezala.
- Gaintzan, 1959tik 1964ra egon zen; han, musika irakasten zien gazteei eta harmoniuma jotzen ere bai.
- Apaizgintza utzi ondoren, fundizio batean aritu zen lanean, musikako irakasle ere bai eta, horixe, bertso eskolaren sortzailea izan zen.
- Orain, bertso-doinuekin dihardu lanean; 3.100 bat bilduak ditu.

Juan Mari Dorronsoro Garmendia

- Gaintzan jaio zen 1945/03/03an.
- D. Juan Ezeizabarrenak irakatsi zizkion solfeoa eta harmoniuma 8-9 urte zituela.
- Soinu handia eta txistua ikasten 14 urterekin hasi zen, bere kontura.
- D. Joanen anaia frantziskotarrak, D. Manuelek, udan oporretara etortzen zenean irakasten zion musika (eta besteek urte betean baino gehiago ikasten zuen bi hilabetea).
- 11-12 urterekin hasi zen organoa jotzen, soldadutzara joan arte.
- Osaba Felixekin ere jotzen zuen soinua.
- “Aita Donostia” koruan kantatu zuen, eta horien tartekoen ezkontzetan organoa jo ere bai. (Anaia Iñaki ere koruan ibili zen).
- 43 urterekin irakasle batekin (Belen?) hasi zen berriro musika ikasten, urte eta erdi inguru. Gero, Manolo Yabenekin aritu zen ikasten.
- Gaur egun, ezkontzetan eta beste ospakizun batzuetan jotzen du soinua.
- Baina etxean aritzen da, gehienbat, esku soinua eta organoa jotzen, ahal duen guztietan.

Xanti Garmendia Olano

- Gaintzan jaio zen 1948/05/12an.
- Gurasoei kantatzea asko gustatzen zitzaien eta hortik hasi zen bere zaletasuna.
- 15 urte arte herriko eskolan ikasi zuen.
- Saturrarango Seminaria joan zen, eta han urte bete egin ondoren, Donostiako Seminaria etorri zen. Donostian 7 urte inguru egin ondoren, EUTGn ikasi zuen Filosofia eta Letrak, eta 3. ikasturtetik aurrera Deustun ikasi zuen Historia.
- Musika ikasketak:
 - Gaintzan aritu ziren ikasten, D. Joan Ezeizabarrenarekin, Bittor Idiazabalekin eta Joanito Dorronsororekin; Joanitorekin gazte koadrila aritzen zen solfeoa ikasten. Pianoa jotzen ere Joanitorekin hasi zen.
 - Seminarioan jarraitu zuen musikarekin. Ikasturtekoen ospakizunetan jotzen zuen Seminarioko organoa.
 - Saturraranen Eustasio Etxezarretarekin eta Isidro Uzkudunekin ikasi zuen. Donostiako irakasleen izenak ez ditu gogoratzen, kontserbatorioko irakasleak ziren. Han ere harmoniuma jotzen zuen.
 - Asteburuetan etxera etortzeko baimena ematen hasi zirenetik aurrera Gaintzan jotzen hasi zen, Joan Mari Dorronsororen ondoren, eta gaur egun ere jarraitzen du elizako harmoniuma jotzen.
 - Zaldibian ere jotzen du, Lasak ezin duenean.
 - Boda eta ospakizunetan jo izan du hainbat lekutan: Urban, Lazkaomendin, Altzagaraten, Aldaban, Larraitzen, Loiolan, Ataunen, Zaldibiako Saturdin...